

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA						Kodea: 014777	
ARLOA / IRAKASGAIA	EUSKARA						DATA	2022-2023
MAILA	LH1		LH 2	x				
1	ARLOAREN GUTXIENENKO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA							

- Ahozko eta idatzizko diskurtsoak ulertzea eta interpretatzea, ulertutakoa komunikazio eta ikaskuntza egoera berriei aplikatzeko.
- Hizkuntza egokitasunez, koherentziaz eta zuzentasunez erabiltzea ahoz nahiz idatziz, komunikazio premia guztiak betetzeko.
- Hainbat egoeratan elkarriketan egoki aritzea, errespetuz eta elkarri lagunduz, norberaren sentimenduak eta ideiak zein diren jakiteko, nork bere jokabidea kontrolatzeko, eta jendartean eraginkortasunez komunikatzen ikasteko.
- Gizarte hedabideak, informazio eta komunikazio teknologiak eta beste iturri batzuk erabiliz komunikatzea (informazioa lortzea, hautatzea eta prozesatzea...), jakintza eraikitzeo eta bizitza sozialean parte hartu.
- Hizkuntzen erabilerei eta araei buruzko gogoeta egitea, hizkuntza egoki, koherentziaz eta zuzen erabili ahal izateko, hizkuntzaren estereotipoak eta bestelako aurreiritziak alde batera utziz.
- Ikasgelako eta komunitateko hizkuntza aniztasunari balioa ematea, hizkuntza guztiak komunikazio tresna egokitzat eta kultura ondareztat hartuz.
- Ulertuz irakurtzea era askotako testuak, ikasleen esperientziekin eta interesekin zerikusia dutenak, eta, horrela, irakurketara zaletzea.
- Literaturaz gozatzea, genero askotako testuak irakurriz eta entzunez, hizkuntza aberasteko eta nortasun kulturala, soziala eta pertsonala eraikitzeo.
- Literaturaren hizkuntzaren oinarriko arauak ezagutzen hastea, testuak ulertzeko eta ekoizteko.
- Jarrera ona eta konfiantza edukitzea norberak ikasteko duen ahalmenean, komunikatzeko gaitasuna hobetzeko.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 1. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	1. PROIEKTUA : gutuna <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa. ● Norberaren motibazioa. ● Ahozko interakziorako oinarriko arauak. ● Gaiaren eta norberaren 	2. PRIKETUA: Egun ahaztezina kontaktzen <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa. ● Norberaren motibazioa. ● Ahozko interakziorako oinarriko arauak. ● Gaiaren eta norberaren 	3. PROIEKTUA : postala <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa. ● Norberaren motibazioa. ● Ahozko interakziorako oinarriko arauak. ● Gaiaren eta norberaren



<p>esperientziaren arteko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa ozena ● Ipuinak irakurri eta Ipuinen ulermena. ● Komikiak irakurri eta Komikien ulermena: labur kontatu. ● <i>-t(z)ea aditz aspektua</i> ● Esaldia: oinarritzko egiturak (<i>Ni... naiz./ Nik ... dut.</i>) ● Graduatzaileak: <i>nahiko</i>, oso, errepikapena. ● Silaba eta hitza. ● Esaldia. ● NON kasua. ● Hiztegia. ● Agurrak. ● Letra larria (pertsone izenak) eta letra xehea (gauzen izenak). ● Proposamenak egiteko galderak: <i>...-go/-ko (a) ...?</i> ● Harridurazko esapideak: <i>Bai...-(e)la!, A zer... -n!, Zer ...-n!</i> ● Izaki mitologikoak ● Deskribapena: Lekua ● Norbait lasaitzeko egiturak. ● Laguntza eskatzeko egiturak. ● Lagunarteko elkarrizketak. ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura 	<p>esperientziaren arteko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa ozena ● Ipuinak irakurri eta Ipuinen ulermena. ● Komikiak irakurri eta Komikien ulermena: labur kontatu. ● Ohiturak adierazten: <i>-t(z)en</i> aditz aspektua. ● NOR-NORK aditz laguntzailea (<i>dut, nuen eta du, zuen</i>). ● Esaldia: letra larria eta puntua. ● <i>-a, -ak</i> ● Hotsak (onomatopeiak) ● Harridurazko esapideak. ● Sentimenduen azalpena eta adierazmena. ● Beldurra edo ezustekoa adierazteko egiturak. ● Ahozko pasadizoa. ● Jolasaren azalpena eta arauak. ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura 	<p>esperientziaren arteko lotura.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Irakurketa ozena. ● Ipuinak irakurri eta Ipuinen ulermena. ● Komikiak irakurri eta Komikien ulermena: labur kontatu. ● Literatura testuak: igarkizuna ● Hiztegia ● Galderak eta erantzunak ● Galdera eta harridura markak. ● Agurrak. ● Iritzia adierazteko egiturak. ● Koma ● Dekribapena: animaliak. ● Deklinabidea: NONDIK eta NORA kasuak ● Aditza: orainaldia eta lehenaldia. ● Zerbait gogoko dutela adierazteko esapideak. ● Lehenaldiko azalpena: txikitako ohiturak ● Adostasuna eta desadostasuna adierazteko egiturak. ● Aholkuak ulertzea eta ematea. ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura
--	--	---

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA 2. MAILA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	PROIEKTUA: errezeta <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa ● Norberaren motibazioa ● Ahozko interakziorako oinarritzko arauak ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura 	PROIEKTUA: Irrati saioa <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa. ● Norberaren motibazioa. ● Ahozko interakziorako oinarritzko arauak. ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura. ● Irakurketa ozena. 	PROIEKTUA: Poema / bertsoa <ul style="list-style-type: none"> ● Komunikazioaren erregulazioa. ● Norberaren motibazioa. ● Ahozko interakziorako oinarritzko arauak. ● Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura.



<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa ozena • Idatzizko kodea • Zenbait esapide: agurrak eta baimena eskatzea • Ortografia arauak: koma, eta galdera eta harridura markak • Komikia: "Asko aldatu al gara?" • Komikiaren ulermena; ideia nagusiak • Norberaren esperientzia • Ipuina: "Hiru gurariak" • Ipuinaren ulermena • Gaiaren eta norberaren esperientziaren arteko lotura • Hiztegia: arropak • Adjektiboak: nolakoak dira arropak? • Ortografia arauak: letra larria eta amaierako puntua • Komikia: "Neuk aukeratuko dut zer jantzi!" • Komikiaren ulermena: laburpena • Iritzia • Ipuina: "Ipar haizea eta eguzkia" • Erakusleak: <i>hau, hori, hura</i> • Aditza (ekintzak): <i>-tu, -du</i> • Errezeta • Errezeta: ezaugarri nagusiak • Komikia: "Jostailuak denontzat" • Lehengo jolasak • Poema: "Elurra" 	<ul style="list-style-type: none"> • Idatzizko kodea. • Hiztegia: garbitasunerako tresnak. • Eredu semantikoa. • Izenondoak: <i>biguna, gogorra, leuna...</i> • Konparazioak: <i>-agoa, -ena</i> • Aditzondoak: <i>kokoriko, zilipurdika, lau hankan, buruz behera</i> • Komikia: "Hau kiratsa!" • Komikiaren ulermena: laburpena • "Mirentxuren ohiturak" audioa • Norberaren esperientzia: garbitzeko ohiturak • Sentsazioen adierazpena eta esapideak • Ipuina: "Martin eta Lamina Txikia" • Iragarkia • Iragarkiaren ezaugarriak • Idatzizko ekoizpena; iragarkia • Hiztegia: herriko lekuak eta kokapena • Letrak, silabak eta hitzak • S, x eta z • Komikia: "Zer da zerbitzu publikoa?" • Audioa: "Mattin osabarekin telefonoz" • Iritzia • Errespetuzko jarrera • Ipuina: "Oilo gorria" • Hiztegia: basoko animaliak • Letrak, silabak eta hitzak • S, x, z eta <i>ts, tx, tz</i> • Komikia: "Kukua kantari" • Norberaren esperientzia: sineskeriak • Audioa: "Usoa, hegan ekarritako neskatoa" • Jolasa: animaliak deskribatzen • Poemak: "Inuitak"; "Bizikleta batean". 	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa ozena. • Idatzizko kodea. • Hiztegia: familiako kideak • Esapideak • Aditza: <i>da, zen; ditu, zitu; dio, zion</i> • Onomatopeiak • Komikia: "Etxean bat gehiago" • Audioa: "Kaixo, lagunok" • Pertsonen deskribapena • Ipuina: "Txorimaloa" • Nortasuna.
--	--	--



EBALUAZIO- IRIZPIDEAK

- Ahozko diskurtsoen esanahia ulertzea, haien erabilerako testuinguruan kokatuta. Testu horien informazio garrantzitsua antzematea, eta beste egoera batzuetan aplikatzea ulertutakoa.
- Haurren bizitzarekin loturako testu idatzi errazak ulertzea, aurrez emandako azterketa-jarraibideak erabiliz.
- Laguntza jasota, informazio zehatza aurkitzea eta hautatzea, irakurketaren helburua, aurrez ezarritakoa, betetzeko.
- Hitzez adieraztea gertaerak, bizipenak edo ideiak era antolatuan azaltzen dituzten testu erraz eta laburrak
- Ikastetxeko harreman-egoeretan parte hartzea, harremanaren oinarritzko arauak betez eta gainerako pertsonen begirunea erakutsiz.
- Eredu argiez baliatuta, haurren bizipenekin zerikusia duten testu idatzi erraz eta laburrak sortzea, irakaskuntza-mailari dagozkion egokiera eta zuzentasuna erakutsiz.
- Lagundu jasota, informazio- eta komunikazio-teknologiak erabiltzea, ikaslearen mailari egokitutako euskarrien bidez eta erabilpen horren xedea ikastea izanik.
- Idazketari buruz gogoeta egitea —testuak, esaldiak eta hitzak konparatuz eta eraldatuz—, eta, jakintza hori erabiliz, idazketa-sistemaren erabilera sendotzea
- Bi hizkuntzetan berdina den oinarritzko terminologia ezagutzea, eta hizkuntza-jardueretan erabiltzea.
- Gelako eta komunitateko hizkuntzen aniztasuna ezagutzea eta harekiko jarrera baikorra izatea, inguruan hizkuntzak nola erabiltzen diren ikusiz.
- Hizkuntza gutxituak garatzearen eta normaltzearen alde dago.
- Gelako liburutegia eta mediateka erabiltzea eta haien antolaketa eta funtzionamendua ezagutzea.
- Zikloari dagozkion literatura-testuak irakurtzea, entzutea eta adieraztea: aho-tradiziokoak, haur-literaturakoak eta helburu ludiko-estetikoa dutenak.
- Ikasten ikasteko estrategia batzuk erabiltzea, eta hobeto ikasten lagunduko dioten alderdi batzuk identifikatzea

KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK

Ebaluaketa jarraia egingo da. Nahiz eta irakasgai bakoitzak bere berezitasunak izan, orokorrean kontutan izango ditugun irizpideak hauek izango dira:

EDUKIAK %60

Probak edo azterketak eta erronkak.

PROZEDURAK ETA JARRERAK %40

- Gelako lana: autonomia, antolaketa...
- Etxerako lana: ordena eta aurkezpena.
- Fitxak eta koadernoak: txukuntasuna, pautak...
- Ardura eta jarrera: bakarkakoa, irakasle eta ikasleekikoa.
- Txukuntasuna: bakoitzaren materiala, amankomunekoak, mahaia...
- Komunikatzeko euskera erabiltzen du